



Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren Euskal Behatokiaren Funtzionamendu Araudia

I. titulua XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua- Izaera, atxikipena eta araubide juridikoa

1. Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia kide anitzeko organo aholku-emailea dugu eta bere helburua da Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari aholku ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen kontrako indarkeria matxistaren adierazpen guztien ezaugarri, arrazoi eta ondorioak ikertzean, aztertzean eta zabaltzean, baita horren inguruko diagnostikoak egitean ere.

2. Behatokia atxikita egongo da Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzara eta horrek beharrezko ildoak eta jarraibideak emango ditu hark bere xedeak bete ditzan.

3. Bere funtzionamenduari dagokionez, Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia abenduaren 13ko 264/2011 Dekretuan xedatutakoaren mende egongo da, Dekretu horrek Behatokia sortu eta arautzen baitu, baita Araudi honetan xedatutakoaren mende ere. Ordezkatzeko izaeraz, aplikagarria izango da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan aurreikusitakoa.

2. artikulua- Egoitza

Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiak egoitza izango du Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bulegoetan, Vitoria-Gasteizen.

3. artikulua- Eginkizunak

Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiak ditu atxikita Behatokia bera sortu eta arautzeko abenduaren 13ko 264/2011 Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako eginkizunak.

4. artikulua- Osaera

Bere osaerari eta funtzionamenduari dagokienez, Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia organo hauek osatuko dute:

a) *Kide anitzeko organoak:*

- Osoko Bilkura.
- Batzordeak edo berariazko lan-taldeak.

b) *Kide bakarreko organoak:*

- Lehendakaritza.
- Idazkaritza

II. titulua BEHATOKIKO KIDEAK

5. artikulua- Kideak hautatzea eta izendatzea

1. Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiko kideak abenduaren 13ko 264/2011 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera aukeratuko dira.

2. Behin aukeratuz gero, Behatokiko lehendakariak izendatuko ditu.

3. Behatokiko kide diren erakundeei beren ordezkaria hautatzeko –bi aldiz gutxienez– eskatu arren, beroriek egiten ez badute, Behatokiaren osaeran parte hartzeari uko egiten diotela ulertuko da.

6. artikulua- Karguen iraupena, kideen berrautaketa eta kargu-uztea

1. Kide-karguaren iraupena hiru urtekoa izango da, baina iraupen bereko alditan luza daiteke.

2. Behatokiko kideen agintaldia amaitu ahalko da aurreko paragrafoak aipatzen duen kargu-iraunaldia bete baino lehen, kasu hauetan:

a) Kargua ezeztatzea, izendatu zuen pertsonak edo erakundeak adostuta.

b) Bere izendapenak oinarri duen kargua uztea.

- c) f) Behatokiko lehendakariari aurkeztutako ukoa edo dimisioa.
- d) Heriotza.
- e) Ebazpen judizial irmoa, kargu publikoak desgaitzea edo kentzea berekin dakarrena.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, egin beharreko ordezkariak iraungo du bera eragin duen pertsonaren agintaldia amaitzeko geratzen den denbora.

7. artikulua- Behatokiko kideen ordezkariak

Behatokiko kideekin batera, ordezkariak hautatu eta izendatuko dira, kideak egon ezik, beraien eginkizunak beteko baitituzte.

8. artikulua- Behatokiko kideen eskubideak

Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiko kideek eskubide hauek izango dituzte:

1. Hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute partaide diren kide anitzeko organoen bileretan, baita beren botoaren esanahia eta arrazoiak azaltzeko ere.
2. Partaide diren kide anitzeko organoetan jorratzen diren gaiei buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea, baita gainerako kide anitzeko organoetan jorratutakoari buruzkoa ere, berariaz hala eskatzen dutenean.
3. Partaide diren kide anitzeko organoen ezohiko bilerarako deia eskatzea, ondoren datozen artikuluetan zehaztutako eran eta gehiengoarekin.
4. Gai-zerrendan sartzeko proposamenak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea, baita partaide diren kide anitzeko organoetan akordioak hartzeko edo gai jakinen bat aztertzeko ere, ondoren datozen artikuluetan zehaztutako eran eta gehiengoarekin.
5. Beren ardurapean utzitako ekitaldi guztietan Behatokiaren ordezkari izateko eskubidea, Lehendakariari dagokion ordezkari-tza-eskudantzia orokorra bazter utzi gabe.

6. Organo bakoitzarentzat adierazitako aurrerapenarekin, bileren deialdiaren eta gairerrendaren berri izateko eskubidea, baita berorietan agertzen diren gaiei buruzko agiriak eta informazioa eta aurreko bileraren akta eskuragarri izateko ere.

7. Eskaerak eta galderak egiteko eskubidea.

9. artikulua- Behatokiko kideen betebeharrak

Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiko kideek betebeharrak izango dituzte:

1. Partaide diren kide anitzeko organoen bilkuretan parte hartzea.
2. Araudi honen eta, hala egokituz gero, bera garatzeko onartzen diren irizpide eta jarraibideen arabera jarduteko betebeharra.

III. Titulua ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA

.....

▪ I. kapitulua.- OSOKO BILKURA

10. artikulua- Definizioa eta osaera

Osoko Bilkura da Behatokiaren borondatea erabakitzeko eta adierazteko organo gorena, eta bere osaera eta funtzionamendua abenduaren 13ko 264/2011 Dekretuaren 5. artikuluan daude araututa.

11. artikulua- Eginkizunak

1. Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia sortu eta arautzen duen abenduaren 13ko 264/2011 Dekretuaren 4. artikulua jasotzen dituen eginkizunak Osoko Bilkurak hartzen ditu oso-osorik bere gain.

2. Gainera, Osoko Bilkurari dagokio gai hauei buruzko erabakiak hartzea:

- a) Behatokiaren lan-programa onartzea.
- b) Behatokiaren jarduera-lerro nagusiak onartzea.

- c) Egindako kudeaketa aztertzeko urteko txostena onartzea, baita Euskal Autonomia Erkidegoan indarkeria matxistaren hedadurari eta eboluzioari buruzko datuak biltzen dituen egoera-balantzea ere.
- d) Batzordeak edo berariazko lan-taldeak eratzea eta beren osaera, xedeak eta funtzionamendu-sistema ezartzea, baita beren eginkizunak eta –hala badagokio– beroriek lortzeko epea ere.
- e) Beren akordioak argitara emateaz erabakitzea.
- f) Behatokiaren funtzionamendu-araudia egitea eta aldatzea. Araudia aldatuko da Agindu honen IV. tituluan ezarritako prozeduraren arabera.
- g) Autonomia-erkidegoko, Estatuko eta nazioarteko antzeko beste erakunde batzuekiko harremanak sustatzea eta izatea, baita erakunde publikoen eta gizartearen arteko truke- eta komunikazio-foroa eratzea ere.
- h) Araudi hau garatu eta aplikatze aldera, Behatokiaren funtzionamendurako beharrezkoak diren irizpideak, jarraibideak eta gomendioak onartzea.
- i) Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiarentzat ezarritako helburuak hobeto betetzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak burutzea.
- j) Partaide den kide anitzeko organoen elkarren segidako bi bileratara edo aldizkako hirutara bidezko arrazoirik gabe urtebetean zehar joan ez den kidea ordeztzeko proposamenaren egokitasuna aztertzea, hain zuzen, kide hori hautatu zuen erakundeari aurkezteko.
- k) Gehiengo Osoak edota Lehendakaritzak hala uste dutenean, Behatokiako egoitza ez den Euskal Autonomia Erkidegoko bestelako tokietan bilerak egitea erabakitzea.

12. artikulua- Saio-motak

- 1. Osoko Bilkuraren saioak ohikoak edo ezohikoak izan ahalko dira.
- 2. Osoko Bilkurak ohiko bilera egingo du, nahitaez, urtean bi aldiz gutxienez.
- 3. Osoko Bilkurak ezohiko bilera antolatuko du kasu hauetako batean:
 - a) Lehendakariaren proposamenez, premiazkotzat jotzen badu.
 - b) Kide gehienek, gutxienez, lehendakariari zuzendutako idazki bidez hala eskatzen dutenean. Idazki horretan, nortzuk diren eta beren sinadurak agertzeaz gain, landu nahi diren gaiak eta eskatu duten ezohiko bilera justifikatzen duten arrazoiak jasoko dira.

13. artikulua- Deialdia

1. Osoko Bilkuretarako deia lehendakariak egingo du, gutxienez, bilera egin baino hilabetea lehenago, presako arrazoiak daudenean izan ezik. Kasu horretan adierazitako epea hamar egunera murriztu ahal izango da. Bilerek bete beharko dute Behatokiaren barne-funtzionamendurako Araudi honetan xedatutakoa eta, halakorik ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa.

2. Deialdia idatziz egingo da eta bertan adieraziko da bilera non egingo den, zein egunetan, zein ordutan, baita gai-zerrenda ere. Halaber, jorratu beharreko gaiei buruzko berariazko dokumentazioa erantsiko da.

3. Nolanahi ere, Osoko Bilkura baliozkotasunez eratutzat joko da deialdiaren eskakizunak bete ez arren; baldin eta, kide guztiak bilduta daudela, aho batez erabakitzen badute.

14. artikulua- Gai-zerrenda

1. Bileren gai-zerrenda lehendakariak zehaztuko du. Ohiko bi bileretan Osoko Bilkurako kideek zenbait gai jorratzeko egindako iradokizunak lehendakariak behar bezala aztertuko ditu gai-zerrenda prestatu baino lehen; dena den, bertan sartu beharko dira Behatokiaren Osoko Bilkurako kideen herenak, gutxienez, formalki eskatutako gaiak.

2. Ezohiko bileren gai-zerrendak jaso beharko ditu bilera hori bultzatu duen kideak aurkeztutako gai guztiak.

15. artikulua- Quoruma

1. Osoko Bilkura lehen deialdian balio osoz eratzeko quorumak gutxienez kideen erdiak behar ditu, eta horien artean ezinbestez egongo dira lehendakaria eta idazkaria.

Quorum hori lortzen ez bada, Osoko Bilkura bigarren deialdian eratuko da lehenengo deialdirako adierazitako ordutik ordu-erdia igaro eta gero.

2. Osoko Bilkura bigarren deialdian eratzeko nahikoa izango da kideen herena bertaratzea eta horien artean ezinbestez egongo dira lehendakaria eta idazkaria.

Aurreko paragrafoetan ezarritako quorumak bilera osoan bete beharko dira.

16. artikulua- Erabakiak hartzea

1. Osoko Bilkuraren erabakiak hartuko dira bertan dauden kideen gehiengo soilaren aldeko botoaz. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitate-botoak erabakiko du.
2. Gai-zerrendatik kanpo landuko diren gaiak dagokienez:
 - a) Ohiko bileraren kasuan, akordioa baliozkoa izateko bertan dauden kide guztien gehiengo osoaz hartu beharko da. Hala ere, akordioa hartutako bileran bertaratu ez diren kideei jakinaraziko zaie; hain zuzen, jakinarazpena jasotzen denetik hamabost eguneko epean egokituz jotzen dituzten eragozpenak azal ditzaten, hala egokituz gero. Edonola ere, hartutako akordioa baliozkoa izango da.
 - b) Ezohiko bilera denean, ezin izango da balio osoz erabakirik hartu, gaiak ez badaude bileraren xedeetan.
3. Osoko Bilkurako kideek aktan jasoaraz ditzakete beren botoaren esanahia azaltzen duten arrazoiak.

17. artikulua- Bileren akta

1. Osoko Bilkura bakoitzean akta egingo da, idazkariaren fedepean, eta bertan lehendakariaren oniritzia agertuko da.
2. Bileren aktetan hau jasoko da:
 - a) Bertaratu diren, bertaratu ezina adierazi duten eta bertaratu ezina adierazi ez duten kideen izen-abizenak, Araudi honen 9.1. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.
 - b) Bilera non eta noiz egin den.
 - c) Bilera ohikoa edo ezohikoa izan den eta lehenengo edo bigarren deialdian egin den.
 - d) Bileraren gai-zerrenda.
 - e) Aztertuko diren gaiak eta eztabaiden puntu nagusiak.
 - f) Lehendakariak bozketatik pasarazitako proposamenak.
 - g) Hartutako erabakien edukia eta bozketen emaitza.
 - h) Hala egokituz gero, Behatokiko kideek beren botoaren esanahiari buruz emandako justifikazioak.

3. Akta bidaliko zaio Behatokiko kide bakoitzari hurrengo saioaren deialdiarekin batera, hurrengo bilera izan baino 20 egun lehenago. Orduan, hura onartu beharko da eta, hala badagokio, dagozkion zuzenketak gehituko dira.

4. Idazkariak ziurtagiria egin ahalko du hartutako berariazko akordioei buruz, aurrerago akta onartzearen kalterik gabe. Akta onartu aurretik egiten diren ziurtagirietan akta onartu dela berariaz adierazi beharko da.

■ **II. Kapitulua. BATZORDEAK EDO LAN-TALDEAK**

18. artikulua- Eraketa, osaera, xedeak eta funtzionamendua

1. Batzordeen eta berariazko lan-taldeen eraketa, osaera, xedeak eta funtzionamendu-arauak egitea Behatokiko Osoko Bilkuraren eskumenekoak dira.

2. Batzordeak eta berariazko taldeak iraunkortasunez era daitezke edo, gaiaren arabera, alderdi jakin batzuetarako, bere kide gehienek onartu ondoren.

3. Batzorde edo lan-talde bakoitza eratzeke erabakiak emandako eginkizunak zehaztu beharko ditu; baita, hala badagokio, beroriek lortzeko epea ere.

4. Batzordeek edo lan-taldeek gai horretan adituak diren pertsonen laguntza eska dezakete; baita emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko arlo horretako prebentzioari edo sentsibilizazioari loturiko erakunde edo elkarteena ere.

5. Behatokiko idazkariak hartuko du bere gain horren koordinazioa eta dinamizazioa eta, hala egokituz gero, horretarako izendatutako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako teknikaria.

19. artikulua- Osaera

Batzordeak eta berariazko taldeak gutxienez sei kidek eta gehienez hamabik osatuko dituzte.

Berorietako partaide izan daitezke Behatokiko kide izan gabe aditutzat hartutakoak edo elkarteetan bereziki esanguratsuak izanez gero, dena dela Osoko Bilkurak izendatuko ditu.

20. artikulua- Eginkizunak

Batzordeen edo berariazko lan-taldeen eginkizunak dira Osoko Bilkurak emandakoak.

21. artikulua- Funtzionamendu-araubidea

Batzordeak edo berariazko lan-taldeak biltzeko deialdia Behatokiko idazkariak egingo du. Funtzionamendua malgua eta parte-hartzailea izango da, jorratu behar den gaiari egokituta eta Osoko Bilkuraren jarraipenei kasu eginez.

▪ III. Kapitula **LEHENDAKARITZA**

22. artikulua- Lehendakaritza

Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiaren Oso Bilkuraren lehendakaritza Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren titularrari dagokio, Behatokia sortu eta arautzeko abenduaren 13ko 264/2011 Dekretuaren 5.2 artikuluaaren arabera.

23. artikulua- Eskumenak

Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiaren Lehendakariak eskumen hauek izango ditu:

1. Behatokiaren ordezkari izatea.
2. Osoko Bilkuraren saioak deitzea eta horien buru izatea, bilerak behar bezala gidatzeko jarraibideak lantzea eta eztabaidak moderatzea.
3. Eztabaidak zuhurtzia-irizpideen arabera zuzentzea, eta irizpide horiei jarraituz Behatokiko kideen mintzaldiak eta horien iraupena arautuko ditu.

4. Osoko Bilkurako saioen gai-zerrenda prestatzea, Araudi honetan ezarritako prozedurari jarraituz.

5. Bileren aktak bere sinaduraz berrestea, erabakiak bidali eta argitaratzeko agintzea eta beroriek bete beharra xedatzea.

6. Institutuzio, erakunde, entitate, elkarte, agintari eta partikularrekiko harremanetan Behatokiaren izenean jardutea.

7. Araudi hau betetzea eta betearaztea, zalantzazko kasuetan interpretatzea proposatuko zaio Osoko Bilkurari eta omisio-kasuetan integratzea.

8. Legean eta araudi honetan emandako gainerako eginkizun guztiak, lehendakari izateagatik dagozkionak edo Behatokiaren Osoko Bilkura ordezkatzearen bidez bere gain hartutakoak eta; orokorrean, araudi honek beste organo batzuei esleitzen ez dizkienak.

▪ **IV. kapitulua. IDAZKARITZA**

24. artikulua- Idazkaritza

Behatokiaren Osoko Bilkuraren Idazkaritza Genero-indarkeriaren Biktimei laguntzeko Zuzendaritzako funtzionario bati egokituko zaio; hitza izango du, baina botorik ez.

25. artikulua- Eskumenak

1. Behatokiko Osoko Bilkuraren idazkaritzak eskumen hauek izango ditu:

- a) Behatokian aurkeztu nahi diren gai, txosten, proposamen edo agiri guztiak jasotzea, antolatzea eta bideratzeko prestatzea; hain zuzen, Behatokiko kideek zein beste pertsona batzuek aurkeztuta, eta horixe da arauzko bidea Osoko Bilkuran trata daitezen eta guztiei behar den izapidetzeko.
- b) Gai-zerrendan sartutako gaiei buruzko agiri guztiak aztertu ahal izateko Behatokiko kideen esku jartzea.
- c) Behatokiak sortu edo bere esku duen informazioa beharrezko pertsonengana edo erakundeetara bideratzea.
- d) Osoko Bilkuretara azaltzea.

- e) Osoko Bilkuraren aktak egitea eta hartutako erabakiak behar bezala bideratzea.
- f) Lehendakariaren oniritziaz, fede-emaille gisa jardutea, aktak eta Behatokiak hartutako erabakiak ziurtatuz eta; beharrezkoa izanez gero, ziurtagiria akta onartu baino lehenagokoa dela berariaz adieraziz. Halaber, lehendakariaren oniritziaz, irizpen, boto partikular eta bere zaintzapean utzitako beste agiri batzuen ziurtagiriak emango ditu.
- g) Bere ardurapean dauden espedienteak eta artxiboa antolatzea eta zaintzea, baita dokumentuen sarrera- eta irteera-erregistroa ere; eta, hala eskatzen zaionean, bere organoen eta kideen esku jarriko ditu.
- h) Osoko Bilkurak araudi honen 11.2 c) artikulua aipatzen dituen txostena eta balantzea prestatu ahal izateko beharrezkoak diren datu guztiak ematea.
- i) Osatuko diren batzordeak edo berariazko taldeak koordinatzea eta dinamizatzea.
- j) Lehendakariak emandako edo karguari datxekzion kudeaketa- eta koordinazio-ekintza guztiak.

IV. Titulua FUNTZIONAMENDU-ARAUDIA ALDATZEA

.....

26. artikulua- Prozedura

Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiaren Funtzionamendu Araudia aldatzeko prozedura honi jarraituko zaio:

1. Ekimena Behatokiko lehendakariari dagokio edo Behatokiaren Osoko Bilkurari; baina, kasu horretan, kide gehienek proposamena beharko da.
2. Aldatzeko proposamenarekin batera ordezkotestutartikulatua joango da, baita berak oinarritutuen argudioak ere.
3. Araudia aldatzeko proposamena Behatokiko kideen gehiengo osoak onartu beharko du.
4. Herrizaingo Sailari emango zaio aldaketa egiteko erabakiaren berri.

V. Titulua ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

.....

27. artikulua- Behatokiaren laguntza teknikoa eta administratiboa

Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak Behatokiaren funtzionamendu egokirako eta haren kudeaketaren eraginkortasunerako premiazko laguntza teknikoa eta administratiboa emango du eta; halaber, haren esku beharrezko baliabide materialak eta pertsonalak jarriko ditu.